

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea 7 zenbakiko zerga ordenantzaren 15. eranskina aldatzeari. Ordenantza horrek dantza ikasketen zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa arautzen du

Udalbatzak 2024ko irailaren 26ko bilkuran erabaki zuen behin-behineko onespena ematea Idantza irakasteko zerbitzua jasotzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen 7. ordenantza fiskalaren 15. eranskina aldatzeari (espediente zenbakia: 2024/549). Erabaki hori 2024ko urriaren 4ko ALHAOn (113. zk.) eman zen argitara. Erabaki horren aurkako erreklamazioak aurkezteko epean inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabakia behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu Toki ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan. Horrela, bada, argitaratu egiten da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onesten duen 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Ordenantza fiskal hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen testu osoa hitzez hitz:

«DANTZA IKASKETENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN 7 ZENBAKIKO ZERGA ORDENANTZAREN 15. ERANSKINA»

1. artikulua. Lege oinarria

Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 24. artikuluan jasotakoarekin bat etorriz, dantza ikasketengatik ordaindu beharreko tasa ezarri zen.

2. artikulua. Subjektu pasiboa

Dantza ikasketengatik ordaindu beharreko tasa ordaintzera derrigorturik daude Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, baldin eta Dantza Eskolan izena ematen badute.

3. artikulua. Tarifa

- Hilabetea bukatutakoan ordainduko dira tarifak, bankuan helbideratuta.
- Hilabetea bukatutakoan sortuko da ordaintzeko beharra, ikaslea dantza eskoletara zenbat bider joan den gorabehera. Ordaindu beharrekoa, gutxienez, hilabete bati dagokiona izango da.
- Hona hemen ordaindu beharreko tasak:

	2024-2025 IKASTURTEKO TARIFAK HILEAN EUROTAN
Dantzaren hastapenak	58,65
Dantza ikastaroa	65,18
Dantza ikastaroa helduentzat	32,59

	2025-2026 IKASTURTEKO TARIFAK HILEANEUROTAN
Dantzaren hastapenak	59,23
Dantza ikastaroa	65,84
Dantza ikastaroa helduentzat	32,91

	2026-2027 IKASTURTEKO TARIFAK HILEAN EUROTAN
Dantzaren hastapenak	60,41
Dantza ikastaroa	67,16
Dantza ikastaroa helduentzat	33,57

	2027-2028 IKASTURTEKO TARIFAK HILEAN EUROTAN
Dantzaren hastapenak	61,62
Dantza ikastaroa	68,50
Dantza ikastaroa helduentzat	34,24

	2028-2029 IKASTURTEKO TARIFAK HILEAN EUROTAN
Dantzaren hastapenak	62,85
Dantza ikastaroa	69,87
Dantza ikastaroa helduentzat	34,92

4. 0 dantza hastapenak ikastaroa, 4-5 urteko umeentzat: 0,00 euro eta matrikula ordaindu beharrik gabe. Behin baino ezin izango da egin ikastaro hori.

4. artikulua. Matrikulazioa

Dantza eskolako ikasleek udal erregistro orokorrean eskatuko dute, idatziz, alta edo baja ematea. Dena den, beti aplikatuko da 3.1 artikuluan xedatutakoa, eta tasa ordaintzeko beharra sortuko da dantza eskoletara joan ala ez. Izena ematean denean, ondoren zehazten diren zenbatekoak sortuko dira matrikulazio tasa gisa.

2024-2025 IKASTURTEKO TARIFAK HILEAN EUROTAN
39,11

2025-2026 IKASTURTEKO TARIFAK HILEAN EUROTAN
39,50

2026-2027 IKASTURTEKO TARIFAK HILEAN EUROTAN
40,29

2027-2028 IKASTURTEKO TARIFAK HILEAN EUROTAN
41,10

2028-2029 IKASTURTEKO TARIFAK HILEAN EUROTAN
41,92

5. artikulua. Hobariak

1. Kuoten ehuneko 30ko hobaria emango zaie familia ugarietako ikasleei. Familia ugari batekoa dela egiaztatzeko, familia ugariaren titulua aurkeztu beharko da matrikula egiten den unean bertan, edo, bestela, Kudeaketa, Dirubilketa eta Ikuskaritzari buruzko 1 zenbakiko Ordenantza Fiskal Orokorreko 21.2 artikuluan xedatutakoa egin beharko da.

2. Artikulu honetan ezarritako hobariak bateraezinak izango dira ordenantza honetan ezarritako tarifetan aplika daitezkeen beste hobari batzuekin. Hobari bat baino gehiago izateko baldintzak betez gero, ikasleari onurarik handiena eragingo diona baino ez da aplikatuko, eta hobarien ehunekoa berdina izanez gero, gehien irauten duena.

6. artikulua. Ez ordaintzea

Tasa horien zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

AZKEN XEDAPENA

Dantza ikasketengatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen 7.15 eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean izango da harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Amurrio, 2025eko otsailaren 14a

Alkatea

JOSE RAMÓN MOLINUEVO LAÑA